

FISKALTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

Bilbo, 2010eko ekainak 15

1. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA EAEn. 2009koa ETA 2008koarekiko BILAKAERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Ogasunek 10.792,1 milioi euro bildu zituzten 2009ko ekitaldian, hau da, aurreko urtealdian baino %15,9 gutxiago. Arabako Foru Ogasunak, 2009ko abenduan, Rover enpresaren BEZaren itzulketagatik Espainiako gobernutik jaso zituen 137,95 milioi euroak¹ eskuratu ezean, bildutakoak 10.654,1 milioi euro izango ziren, eta 2008ko ekitaldiarekiko urripena, %17koa.

Hona hemen bilketako zerga garrantzitsuenak eta berorien bilakaera:

- **PFEZa** da oraindik Foru Ogasunei diru gehien dakarkien zerga: zehazki, 3.917,7 milioi euro biltzen dira zerga horren bidez, alegia, bilketa osoaren %36,3. Zerga honek izan duen %12,1eko jaitsieraz (batez beste baino 3,8 puntu gutxiagokoa), PFEZa da pisuzko zerga guztietatik 2008ko bilketarekiko gutxien urritu dena.
- **BEZak** eragindako bilketa 3.528,2 milioi eurokoa izan da, hots, bildutako guztiaren %32,7koa. Bilketa horrek %17,3ko murrizketa izan du, 2008an bildutakoaren aldean, eta batez bestekoa baino 1,4 puntu gehiagoko jausia (Rover enpresaren BEZ itzulketari dagozkion 137,95 milioi euroak¹ kanpoan utzita, 2009ko BEZaren bilketa 3.390,3 milioi eurokoa izango zen eta %20,5eko urripena agertuko zuen, 2008ko bilketarekin alderatzean).
- **Zerga Berezien** bitartez, 1.361,3 milioi euro bildu dira, bilketa osoaren %12,6, alegia. Zerga horien bilketak ia konstante iraun du (%0,9ko jaitsiera izan du), eta, horren ondorioz, 2008ko ekitaldian bilketako laugarren zerga-multzoa izatetik hirugarren tokira igaro da 2009koan.
- **Sozietateen gaineko Zergak** 1.231,7 milioi euro (hots, bilketa osoaren %11,4) ekarri dizkie Foru Ogasunei. Garrantzizko zergen bilketetatik, zerga horrena da gehien urritu dena: %27,2 jaitsi da, 2008an bildutakoaren aldean, eta batez beste baino 11,3 puntu gehiago.

HITZARTUTAKO ZERGA GARRANTZITSUENEN BILKETA, ZERGA MOTA
KONTUAN HARTUTA; EGITURA ETA BILAKAERA. EAE, 2009-2008

	2009		2009-2008
	Miloi €	%	Aldak. %
PFEZ	3.917,7	36,3	-12,1
BEZ	3.528,2	32,7	-17,3
Z. BEREZIAK	1.361,3	12,6	-0,9
SOZINETATEEN Z.	1.231,7	11,4	-27,2
GAINERAKOAK	753,2	7,0	-27,9
GUZTIRA	10.792,1	100	-15,9

Iturria: Foru Aldundiek hitzartutako zergen bitartez 2009an eta 2008an bildutakoa
(Eusko Jaurlaritza)

Bilketa osatzen duten zergak zuzenekoak edo zeharkakoak diren arabera bereizirik, honako emaitza hauek lortzen ditugu:

- **Zuzeneko zergen** bidez, 5.392,8 milioi euro bildu dira, osoko bilketaren %50, alegia. Zerga horien bilketaren emaitzak %18,3ko urripena izan du 2008koarekin alderatuta (batez besteko gutxipena baino 2,4 puntu handiagoa).
- **Zeharkako zergek** 5.298,4 milioi euroko bilketa eragin dute, hots, bilketa osoaren %49,1. Zerga horien bitartez bildutako zenbatekoa %13,4 gutxitu da aurreko ekitaldikoarekiko; hortaz, batez beste baino 2,5 puntu gutxiago urritu da (Rover enpresaren BEZaren itzulketari dagozkion 137,95 milioi euroak alde batera utziz gero, zeharkako zergen bidez bildutakoak 5.298,4 milioi euro izango ziren, hau da, 2008an baino %15,7 gutxiago).

HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA, ZERGA MOTA KONTUAN HARTUTA:
EGITURA ETA BILAKAERA. EAE, 2009-2008

	2009		2009-2008
	Miloi €	%	ALDAK. %
ZUZENeko Z.	5.392,8	50	-18,3
ZEhARKAKo Z.	5.298,4	49,1	-13,4
GAInERAKoAK	100,9	0,9	-11,2
GUZTIRA	10.792,1	100	-15,9

*Iturria: Foru Aldundiek hitzartutako zergen bitartez 2009an eta 2008an bildutakoa
(Eusko Jaurlaritza)*

Zuzeneko zergen banakapena aztertzean ikus dezakegunez:

- **Lanaren PFEZa** da oraindik zuzeneko zergen osagai nagusia. Zehatz esateko, 2009ko urtealdian, 4.167,1 milioi euro bildu dira zerga horren bitartez, hots, zuzeneko zergek eragindako bilketaren %77,3. Horrek esan nahi du zuzeneko zergen bidez biltzen diren 10 eurotik ia 8 lanaren errentetatik datozela. Horrez gain, zerga horien bilketa %3,6 urritu da 2008koaren aldean, hau da, zuzeneko beste zergek baino 14,7 puntu gutxiagoko urripena izan du.
- **Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten** bidez, 1.758,5 milioi euro bildu dira, alegia, zuzeneko zergen bilketaren %32,6. Mota horretako zergen bitartez bildutakoa %23,2 gutxitu da 2008koarekiko; hau da, batez bestekoa baino 4,9 puntu gehiago urritu da. Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten osagaiak aztertzean, hauxe ikusten dugu:
 - Zuzeneko zergen bidez bildutakoaren %22,8 Sozietateen gaineko Zergatik dator, eta, lehen esan dugunez, zerga horrek 1.231,7 milioi euroko bilketa eragin du, 2008koa baino %27,2 txikiagoa, hain zuzen.
 - Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren bitartez, 526,8 milioi euro jaso dira, hots, zuzeneko zergek eragindako bilketaren %9,8. Zenbateko horrek %11,7ko gutxipena izan du 2008koaren aldean, alegia, zuzeneko zergen batez bestekoak baino 6,6 puntu gutxiagokoa.

HITZARTUTAKO ZUZENeko ZERGEN BILKETA, ZERGA MOTAREN ARABERA;
EGITURA ETA BILAKAERA. EAE, 2009-2008

	2009		2009-2008
	Miloi €	%	Aldak. %
LANAREN PFEZ	4.167,1	77,3	-3,6
- SOZietateen Z.	1.231,7	22,8	-27,2
- ENPR., PROF., K. PFEZ	526,8	9,8	-11,7
ENPR., PROF., K. ERRENTAK (*)	1.758,5	32,6	-23,2
GAINERAKOAK	-532,8	-9,9	5.253,6
ZUZENeko Z., GUZTIRA	5.392,8	100	-18,3

Iturria: Foru Aldundiek hitzartutako zergen bidez 2009an eta 2008an bildutakoa
(Eusko Jaurlaritza)

Ondorioztapena

2009ko urtealdiko bilketari buruzko ataletik atera dezakegun lehenengo ondorioa beraren gutxipen nabaria da (%15,9 urritu da). Halaber, zuzeneko zergen urripen handiago horren ondorioz, mota horretako zergek guztizkoan duten pisua ere murriztu da. Zeharkako zergen bilketari dagokionez, BEZaren %17,3ko gutxipena azpimarratu behar da, kontsumoarena baino askoz handiagoa izan baita, urtealdi horretan (kontsumoa %2,4 gutxitu da). BEZaren urritze handiago hori zerga horretan egindako iruzur handiak baino ezin izan du eragin. Gainera, Arabako Ogasunak 2009ko abenduan eskuratutako 137,95 milioi euroak¹ kenduz gero, BEZak eragindako bilketaren gutxipena askoz handiagoa izango zen: %20,5ekoa, zehazki.

Amaitzeko, azpimarratu behar da lanaren errentek, zuzeneko zergen bilketaren osagai nagusia izaten jarraitzeaz gain (mota horretako zergen bilketaren %77,3 eragiten dute), pisu handiagoa hartu dutela guztizkoan, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentengatik aitortutakoa baino gutxiago urritu direlako. Lanaren errenten eta enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten arteko diferentzia gero eta handiagoak asaldatzeko modukoak dira.

2. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA EAEn. 2010eko URTARRILA- APIRILA ETA 2009ko ALDI BERARI BURUZ IZANDAKO BILAKAERA

2010eko lehenengo lau hilabeteetako bilketa aztertzean, Arabako Foru Aldundiak Rover enpresaren BEZaren itzulketagatik 2010eko martxoan izan duen 297 milioi euroko diru-sarrera¹ hartu behar da kontuan, kopuru mardul horrek nabarmenki aldarazten duelako hiruhilekoko bilketaren bilakaera.

Zehazki, lehenengo lauhilekoko zerga-bilketa, aipatutako itzulketa kanpoan utzita, 3.168,7 milioi eurokoa izan da; hots, 2009ko aldi berean baino %0,2 gutxiago bildu da. Ekitaldiko bilakaerari begiratu beharko zaio, ondorioak atera aurretik. Bilketaren osagai bakoitzari erreparatzean, hauxe ikusten dugu:

- Bilketako joera orokorra goranzkoa izan den arren, **zuzeneko zergen** bidez bildutako zenbatekoa %2,9 gutxitu da, 2009ko lehenengo hiruhilekokoaren aldean. Zuzeneko zergen barruan:
 - PFEZaren bilketa %0,2 urritu da.
 - Sozietateen gainekeo Zergaren zenbatekoak %13,4ko gutxipena izan du.
- 2010eko lehenengo lauhilekoan **zeharkako zergen** bitartez bildutakoa %2,4 handitu da, aurreko urtealdiko aldi berekoarekin alderaturik (297 milioiak kenduta¹). Zeharkako zergen azterketa xehatuak erakusten duenaren arabera:
 - BEZaren zenbatekoa %2,6 hazi da (297 milioiak kenduta¹).
 - Zerga Berezien bidez bildutakoak %1,5eko gehikuntza izan du.
- **Gainerako zergek** eragindako bilketa %5,2 handitu da.

HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA. EAE, 2010eko LEHEN LAUHILEKOKOA ETA
2009ko ALDI BEREKOAREKIKO BILAKAERA

	Milioi €	Aldak. %
ZUZENeko Z.	1.252,4	-5,5
ZEHARKAKO Z.	1.271,7	0,7
GAINERAKOAK	16,1	9,9

Iturria: Foru Aldundiek hitzartutako zergen bidez 2009an eta 2008an bildutakoa
(Eusko Jaurlaritza)

Ondorioztapena

2010eko lehenengo hiruhilekoko zerga-bilketari buruzko datuek suspertzea agertzen dute, bildutako zenbatekoari dagokionez. Dena dela, urtealdiaren gainerakoan izango duen bilakaerari begiratu beharko zaio. Zuzeneko zergek berriro galdu dute pisua guttizkoarekiko, eta mota horretako zergek eragindako bilketaren barruan, alderdirik deigarriena, oraingoan ere, Sozietateen gaineko Zergak agertzen duen gutxipen bizia da.

3. HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA EAEn. 2009koa ETA **1998koarekiko BILAKAERA.**

Hitzartutako zergek 2009ko ekitaldian izan duten urripenaren ondorioz, beraien presio fiskala, hau da, zerga horiek ekonomian duten pisua, gutxitu egin da. Zehatz esateko, hitzartutako zergen presio fiskala BPGd-aren %16,3koa izan da 2009an.

Hitzartutako zergen presio fiskalak **BPGaren 2,5 puntuko jaitsiera** izan du **2008koarekiko**. Horrek esan nahi du bilketak urte horretan izan zuen pisuari eutsi balitzaio, 2009an 1.626 milioi euro gehiago jasoko zirela.


Gutxipena are nabarmenagoa da 2 urteko epealdia aztertuz gero, hots, **2007ko urtealdikoarekin** alderatzen badugu; izan ere, bilketak ekitaldi horretan izan zuen pisuari eutsiz gero, 2009an **BPGd-aren 4,6 puntu** gehiago –alegia, 3.038 milioi euro gehiago– bildu beharko ziren.

2009ko urtealdian, hitzartutako zergen presio fiskala 1998tik honako txikiena izan da. 1998ko ekitalditik hona presioak **BPGd-aren 2,7 puntuko gutxipena** izan du (1.768 milioi eurokoa, hain zuzen ere).

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, presio fiskalaren jaitsiera orokorra izan da, eta bai zuzeneko zergetan, bai zeharkakoetan jazo da. Zehazki:

- 2009ko urtealdian, **zeharkako zergen** presio fiskala BPGd-aren 0,9 puntu gutxitu da 2008ko ekitaldikoarekiko; 2,5 puntu, 2007koarekiko, eta 1,6 puntu, 1998koarekiko.
- Bestalde, **zuzeneko zergen** presio fiskalak BPGd-aren 1,5 puntuko gutxipena izan du 2008koari buruz; 2 puntukoa, 2007koari buruz, eta 1 puntukoa, 1998koaren aldean.

**HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA, GUZTIZKOA,
ZUZENEKOENA ETA ZEHARKAKOENA (BPGd %). EAE, 1998-2009**



Iturriak: Foru Aldundiek hitzartutako zergen bidez 2009an eta 2008an bildutakoa (Eusko Jaurlaritza), eta 1998-2009 epealdiko Barne Produktu Gordina (Eustat)

Grafikoan, **zuzeneko zergek** 2009ko urtealdian izan duten presio fiskala eta 1998az gero izan duten bilakaera ikusi ahal ditugu.


- Presio fiskalik handiena **lanaren PFEZak** jarraitu du izaten, BPGd-aren %6,3koa, hain zuzen. Gainera, zerga horren presioa konstante mantendu da 2008koari buruz, eta hazi ere egin da (0,2 puntu) 2007koaren aldean. Lanaren PFEZaren presio fiskalak BPGd-aren 0,2 puntuko gutxipena izan du 1998ko urtealdikoarekiko.

- **Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten** presio fiskala BPGd-aren %2,7koa izan da 2009an, hots, 2008koa baino BPGd-aren 0,7 puntu txikiagoa, eta 2007koa baino 1,2 puntu gutxiagokoa. Mota horretako errenten presioa 0,3 puntu urritu da 1998ko urtealditik hona. Grafikoak erakusten duenez, errenta horien presio fiskala batez ere 2007tik aurrerako ekitaldietan gutxitu da. Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten osagaien presio fiskala aztertzean ikusten denez:
 - Sozietateen gainerako Zergaren presio fiskala BPGd-aren %1,9koa izan da 2009an, alegia, 2008an baino 0,6 puntu txikiagoa eta 2007an baino 1,2 puntu gutxiagokoa. Zerga horren presioak 0,2 puntuko urripena izan du 1998tik hona; beraz, Sozietateen gainerako Zergaren presio fiskalak baldintzatu du enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten presioaren bilakaera.

 - Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren presio fiskala BPGd-aren %0,8koa izan da 2009an, eta joera ia konstantea izan du aztertutako aldi osoan zehar.

HITZARTUTAKO ZUZENEKO ZERGEN PRESIO FISKALA (BPGd %).

EAE, 1998-2009




Iturriak: Foru Aldundiek hitzartutako zergen bidez 2009an eta 2008an bildutakoa (Eusko Jaurlaritza), eta 1998-2009 epealdiko Barne Produktu Gordina (Eustat)

Zeharkako zergen presio fiskala hurrengo grafikoaren bitartez aztertu ahal da. Bertan ageri denez:

- **BEZ**aren presio fiskala BPGd-aren %5,3koa izan da, hau da, 2008an baino 0,9 puntu gutxiagokoa eta 2007an baino 2 puntu txikiagoa. Zerga horren presioak, halaber, BPGd-aren 0,9 puntuko jaitsiera izan du 1998koari buruz.
- **Zerga Berezien** presioa BPGd-aren %2,1ekoa izan da 2008an, eta ia konstante mantendu da azken bi urteetan, nahiz eta 1998koaren aldean BPGd-aren 0,4 puntu gutxitu den.

HITZARTUTAKO ZEHARKAKO ZERGEN PRESIO FISKALA (BPGd %).

EAE, 1998-2009



Iturriak: Foru Aldundiek hitzartutako zergen bidez 2009an eta 2008an bildutakoa (Eusko Jaurlaritza), eta 1998-2009 epealdiko Barne Produktu Gordina (Eustat)

Ondorioztapena

Presio fiskalak 1998ko urtealditik aurrera izan duen bilakaeraren alderdirik aipagarriena azken bi urteetan, hots, **2008an** eta **2009an**, izan duen **gutxipen** nabarmena izan da. Gutxipen hori bai **zuzeneko** zergen presio fiskalean (batez ere Sozietateen gaineko Zerga urritzearen ondorioz), bai **zeharkako** zergenean (BEZean izandako urritzeak eraginda) jazo da.

Horrez gain, 2009ko ekitaldian, hitzartutako zergen presio fiskala Zerga Bereziak Hego Euskal Herrian biltzen hasi zireneko urtetik, hau da, **1998tik honako txikiena da**, alde handiz, gainera.

Azterlan honek erakusten duenaren arabera, azken aldi honetan hainbestetan aipatzen den **defizit publikoa presio fiskala gutxitzearen** ondorioa da, gastuaren gehikuntzaren ondorio barik.

4. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA (PFEZ). EAE, 2006koa **ETA 1999koarekiko BILAKAERA**

Errenta-iturri bakoitzaren pisua aztertzean ikusten denez, PFEZan aitortutakoaren **%85 lanaren errentetatik** dator gaur egun ere, **enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentei %7,7 eta gainerako errentei %7,1** baino ez dagozkielarik.

Datu horrek agerian uzten du lanaren errentek jarraitzen diotela eusten PFEZaren bilketari.

ERRENTA ITURRIEK PFEZan DUTEN PISU ERLATIBOA (%). EAE, 2006

LANA	ENPR., PROF., ART.	GAINERAKOAK
85,2	7,7	7,1

Iturria: Euskal Ogasunaren 2007ko Txosten Bateratua, EAEko Zerga Koordinazioko Organoa

Era berean, hurrengo taulak erakusten duenez, lanaren errentek batez beste aitortutako errenta soldatakoak ez diren errentek aitortutakoa baino handiagoa da oraindik ere. Zehatz esateko, 2006ko urtealdian **lanaren errentetan**, 20.642,8 euro aitortu ziren **batez beste, jarduera ekonomikoetan dihardutenek batez beste aitortutakoa** (12.491,9 euro) baino **8.150,9 euro gehiago**, alegia.

Datuek, gainera, argi uzten dute bi errenta moten artean dagoen **diferentziak hazten jarraitu duela, 1999ko ekitalditik aurrera**. Izan ere, batez beste aitortutako lan-errentak 5.282,3 euroko gehikuntza izan du 1999az gero, jarduera ekonomikoek batez beste aitortutako errenta 1.159,2 euro baino hazi ez den artean. Horrela, batez beste aitortutako lan-errentaren eta jarduera ekonomikoengatik batez beste aitortutakoaren arteko diferentzia 3.905,2 eurotan handitu da 8 urteko aldi horretan.

Bistan dago jarduera ekonomikoen ondoriozko errentak aitortzen dituztenek urtero-urtero egiten dutela **iruzur fiskala**, Foru Ogasunen permisibitateari eta zigorgabetasunari esker, kudeatzaileek, datuak gero eta txarragoak izan arren, ez ikusiarena egiten jarraitzen dute eta.

KOLEKTIBO BAKOITZAK BATEZ BESTE AITORTUTAKO ERRENTA (€).

EAE, 1999-2006

EKITALDIA	LANA	JARD. EKONOMIKOAK	ALDEA
1999	15.360,5	11.114,8	4.245,7
2000	16.448,2	10.937,1	5.511,0
2001	17.114,9	11.114,4	6.000,5
2002	17.684,4	11.433,8	6.250,6
2003	18.315,3	11.726,7	6.588,6
2004	18.989,8	12.012,9	6.976,9
2005	19.778,4	12.273,9	7.504,5
2006	20.642,8	12.491,9	8.150,9
1999-2006	5.282,3	1.159,2	3.905,2

*Iturria: Euskal Ogasunaren 2007ko Txosten Bateratua, EAEko Zerga Koordinazioko
Organoa*

5. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

Zuzeneko beste zerga garrantzitsua Sozietateen gaineko Zerga da, eta horretan ere iruzurra ohikoa dela esan daiteke. Zehazki, 2006ean Sozietateen gaineko Zergari loturik egin ziren 64.416 **aitorpenetatik**:

- 28.608k (guztizkoaren %44,4k) likidazio-oinarri negatiboa izan zuten.
- 15.621ek (%24,3k%) 6.000 eurotik beherako likidazio-oinarria izan zuten.
- 10.518 aitorpenek (%16,3k) 6.000 eta 60.000 euro arteko likidazio-oinarria izan zuten.
- 5.575 aitorpenek (guztizkoaren %8,7k) 60.000 eta 300.000 euro arteko likidazio-oinarria agertu zuten.
- 300.000 eta 600.000 euro arteko likidazio-oinarria aitortu zutenak 1.408 izan ziren (aitorpen guztien %2,2).
- 2.686 aitorpenek (%4,2k) izan zuten 600.000 eurotik gorako likidazio-oinarria.

SOZietateen GAINeko ZERGAREN AITORPENAK, LIKIDAZIO OINARRIAREN

TARTEEN ARABERA. EAE, 2006

LIKIDAZIO OINARRIAREN TARTEAK	AITORPENAK	AITORPEN %
<0	28.608	44,4
0-6.000	15.621	24,3
6.000-60.000	10.518	16,3
60.000-300.000	5.575	8,7
300.000-600.000	1.408	2,2
>600.000	2.686	4,2
GUZTIRA	64.416	100

Iturria: Euskal Ogasunaren 2007ko Txosten Bateratua,

EAEko Zerga Koordinazioko Organoa

Guztira, Sozietateen gaineko Zergaren aitortpenen %68,7k izan zuten 6.000 eurotik (milioi bat pezetatik) beherako likidazio-oinarria, eta %85ek, 60.000 euro (10 milioi pezeta) baino gutxiagokoa.

Datuek zerga honetan egiten den **iruzur fiskal** itzela egiaztatu besterik ez dute egiten. Ez da ahaztu behar enpresa gehienek moduluko aitortpena egiteko aukera dutela eta, bertan zehaztutako parametroetan oinarriturik, gutxi gorabehera eurek nahi dutena aitortu ahal dutela.

Gogoan izan behar dugu, halaber, Sozietateen gaineko Zergaren tasa efektiboa, hau da, enpresek benetan ordaintzen duten zerga-tasa, tasa erreala baino askoz txikiagoa izaten dela, zerga-arintzeen eta kenketen ondorioz. 2006ko urtealdian, zehazki, Sozietateen gaineko Zergaren tasa nominala %29,4koa izan zen, eta **tasa efektiboa**, berriz, %17,1koa (tasa nominala Foru Arauetan xedatutako %32,6ko zerga-tasa orokorra baino txikiagoa da, zerga honetan tasa berezi murriztagoak daudelako).

SOZietateen GAINeko ZERGA, TASA NOMINALA

ETA TASA EFEKTIBOA. EAE, 2006

TASA	%
NOMINALA	29,4
EFEKTIBOA	17,1

Iturria: Euskal Ogasunaren 2007ko Txosten Bateratua,

EAEko Zerga Koordinazioko Organoa

6. ZERGEN IKUSKAPENAK

Zerga-ikuskapen urriak ikusita, ez da harrigarria soldatakoak ez diren errentetan horrenbesteko zerga-iruzurra egotea.

2008ko ekitaldian, **Bizkaian**, 1.398 zergadun besterik ez ziren ikuskatu. Azken urteetan kopuru horrek igoera txikia bat izan duen arren, ikuskaritza-maila irrigarria da, gaur egun ere.

Gipuzkoan, egoera askoz kezkarriagoa da, 2008ko urtealdian 321 zergadun baino ez baitziren ikuskatu, eta kopuru urri hori, gainera, areago joan da murrizten azken ekitaldietan.

IKUSKAPENEN BILAKAERA. BIZKAIA ETA GIPUZKOA, 1998-2008

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Bizkaia	636	858	858	873	752	683	1.189	1.048	1.205	1.398	1.398
Gipuzkoa	507	576	479	528	390	388	355	363	380	349	321

Iturriak: Bizkaiko Foru Ogasunaren Urteko Memoriak,

Gipuzkoako Foru Ogasunaren Urteko Txostenak

Arabako Foru Ogasunak, bestalde, ikuskapenen berri emateko azterlanik ere ez du argitaratzen.

2007ko ekitaldian, EAEn, 148,2 milioi euroko **zerga-iruzurra hauteman zen**. Herrialdez herrialde banakaturik, hautemandako iruzurra 41,9 milioi eurokoa izan zen Araban, 53,2 milioikoa Bizkaian eta 53,1 milioikoa Gipuzkoan (Bizkaian urtealdi horretan hautemandako zor txikia deigarri suertatzen da, 2006koa baino %25,1 murriztagoa baita).

Hautemandako zorra ikuskatutako zergadunen kopuruarekin zatitutakoan ikusten denez, Bizkaian, 38.059 euroko iruzurra **hauteman zen ikuskatutako zergadun bakoitzeko**, eta Gipuzkoan, 152.209 eurokoa. Bistan dago ikuskapenen eta ikuskatzaileen kopurua handitzea oso errentagarria litzatekeela.

FORMALIZATUTAKO AKTETAKO ZERGA ZORRA (MILA EUROTAN). EAE, 2007

LURRALDEA	ZERGA ZORRA	IKUSKATUTAKO ZERGADUN BAKOITZEKO BATEZ BESTE HAUTEMANDAKO ZORRA
ARABA	41.890	
BIZKAIA	53.207	38,1
GIPUZKOA	53.121	152,2
GUZTIRA	148.218	

*Iturria: Euskal Ogasunaren 2007ko Txosten Bateratua,
EAEko Zerga Koordinazioko Organoa*

B) HEGO EUSKAL HERRIKO ZERGEI BURUZKO ONDORIOZTAPENAK

1. 1998tik HONAKO PRESIO FISKALIK TXIKIENA

Hitzartutako zergen bilketak urripen bizia izan du azken bi urteetan Hego Euskal Herrian, eta ondorioz, presio fiskala ere asko gutxitu da. Izan ere, 2009ko ekitaldiko presioa aztertutako aldi osoko txikiena izan da, hots, 1998ko urtealditik honako presiorik txikiena. Hortaz, 2009ko ekitaldian, EAEn, 1998ko presio fiskalari eutsi balitzaio baino 1.768 milioi euro gutxiago bildu dira, eta Nafarroan, 630 milioi gutxiago. Beraz, hitzartutako zergek 1998an BPGd-an zuten pisuaren arabera zenbatuz gero, 2.398 milioi euro utzi dira bildu gabe Hego Euskal Herrian.

2. EUOPAR BATASUNEKO PRESIORIK TXIKIENETAKOA


Gutizko presio fiskala (gizarte-segurantzaren diruzaintzaren zergen, udal-zergen eta hitzartutako zergen batura) aztertzeak Hego Euskal Herriko presio fiskala Europar Batasuneko txikienetako bat dela ikusteko aukera ematen digu.

Zehazki, HEHko gutizko presio fiskala BPGd-aren %31,2koa izan zen 2008ko urtealdian (%31,6koa EAEn eta %29,8koa Nafarroan). Modu horretan, 15-EBko 14 estatuturi buruz dugun informazioaren arabera, 2008an Irlandak baino ez du HEHkoa baino presio txikiagoa izan (%30,8koa, hain zuzen).

Beraz, HEHko presioa 27-EBkoa baino 9,3 puntu txikiagoa izan da (8,9 puntu txikiagoa EAEn, eta 10,7, Nafarroan); horrek esan nahi du 27-EBn batez beste baino 8.150 milioi euro gutxiago bildu direla (6.090 milioi gutxiago EAEn eta 2.060 gutxiago Nafarroan).

Presio fiskal handiak dituzten estatuekin alderatuz gero, jauzia are nabariagoa da, noski: Danimarkarekiko diferentzia, 17,8 puntukoa da; Suediarekikoa, 16,7koa, eta Belgikarekikoa, 15,3 puntukoa.

GUZTIZKO PRESIO FISKALA (BPGd %). 27-EB, 2008



Iturriak: Eurostat, Foru Aldundiek hitzartutako zergen bidez 2008an bildutakoa (Eusko Jaurlaritza), 2008ko BPGd (Eustat), Nafarroako Ogasunak hitzartutako zergen bitartez 2008an bildutakoa (Nafarroako Gobernua) eta 2008ko BPGd (IEN)

Horrez gain, Europar Batasuneko presio fiskalarekiko defizita nabarmenki handitu da azken urtealdian, 2007an BPGd-aren 6,4 puntukoa izatetik 2008an BPGd-aren 9,4 puntukoa izatera igaro da eta; alegia, 5.360 milioi euroko diferentziazatik 8.150 milioikora pasatu gara, 27-EBko batez besteko presio fiskalari buruz.

3. GERO ETA DESOREKA NABARIAGOAK ZERGA-BILKETAN


Errenta handienei, kapitalari eta enpresei zergak murriztean oinarrituriko zerga-politikak eta iruzur fiskalarekiko permisibitateak gero eta desoreka larriagoak eragin dituzte.

Ildo horretan, esaterako, 1998tik aurrera lanaren PFEZaren pisua handitu egin da, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentekin konparatuta. Zehatz esateko:

- EAEn, lanaren PFEZaren presio fiskala ia konstante mantendu da (%3 urritu da), enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentena, berriz, %10 jaitsi delarik.
- Nafarroan, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten presio fiskala %3,1 gutxitu da 1998ko ekitaldikoaren aldean, PFEZarena %14,6 handitu den bitartean.

Gainera, kolektibo bakoitzak aitortutako batez besteko errenten artean ere gero eta diferentzia handiagoa dago. Zehazki, 2000ko urtealdian batez beste aitortutako lan-errenta 16.994 eurokoa izan zen Hego Euskal Herrian, batez beste aitortutako errenta ekonomikoa 10.307 eurokoa –alegia, 6.687 euro txikiagoa– izan zelarik. Eskuartean dugun azken informazio homogeneoak –2006koak– erakusten duenez, batez beste aitortutako lan-errenta 21.033 eurokoa izan zen, eta batez beste aitortutako errenta ekonomikoa, aldiz, 11.421 eurokoa (9.612 euroko aldea). Beraz, 6 urte hauetan, batez beste aitortutako lan-errentaren eta errenta ekonomikoaren arteko diferentzia 2.924 euro handitu da Hego Euskal Herrian.

BATEZ BESTE AITORTUTAKO ERRENTA (EUROTAN).
HEGO EUSKAL HERRIA, 2000-2006



*Iturria: Euskal Ogasunaren 2001eko eta 2007ko Txosten Bateratuak, EAEko Zerga Koordinaziorako
Organoa, Nafarroako Gobernua*

D) BALORAZIOA

Egungo egoera ekonomikoak jarduera ekonomiaren murrizketa ekarri du, eta honek, **sarrera publikoenak**, eta murrizketa sozialak burutzerakoan argudio gisa erabiltzen ari dira hau gure administrazioak. Hala ere, Hego Euskal Herriko Ogasunen diru bilketaren murrizketa krisialdiko urteetan, bilakaera ekonomikoa dela eta azaldu daitekeena baino handiagoa da. Izan ere, Euro Guneko batez besteko BPGd-ak Hego Euskal Herrikoak baino jaitsiera handiagoa 2007 eta 2009 artean (3,5 puntu Euro Gunean, eta 1,4 puntu EAEn eta 2,4 puntu Nafarroan), eta aldiz, bere presio fiskala gutxiago murriztu da (1,5 puntu Euro Gunean, eta 4,6 puntu EAEn eta 3,4 puntu Nafarroan). Azalpena argia da: Hego Euskal Herrian eman den errenta eta altu eta kapitalaren errentei etengabeko zerga jaitsiera burutu duen zerga politika, eta baita soldatakoak ez diren errentetan eman den iruzurraren hazkundera ere.

Ekonomia bultzatuko lukeen gastu publiko altua inoiz baino beharrezkoagoa den honetan, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuak, gastu publikoa murrizteko aukera hartu dute, eta horrek, ekonomi egoera okertuko du zalan-tza gabe.

Aukera posible bakarra dela sinestarazi nahi digute, eta ez da aurkako zentzuan doan inolako mezurik entzuten. Hala ere, posiblea da politika fiskalean aldaketa, posiblea da gastu publiko altuagoa ordaintzeko baliabide publiko gehiago lortzea baimenduko lukeen politika fiskalaren alde egitea. Soldatakoak ez diren errentetan ematen den zerga iruzurrarekin bukatzea, eta errenta altu, kapital, eta enpresei zergak jaitsi dizkien azken urteetan buruturiko erreformak atzera botatzea litzake horretarako bidea.

Gainera, administrazio publikoak zor publikoa jaulkitzeko aukera ere badauka, eta horrela, gastua handitzeko sarrerak lortu. Izan ere, ELAk urteak daramatza Hego Euskal Herriko administrazioen zorpetze maila baxua salatzen, batez ere, etxebizitza bezalako hain oinarritzko eskubide bat gauzatu ahal izateko familia gehienak zorpetu behar izan diren maila altuarekin alderatzen badugu.

Hala ba, ez da egia krisia bakarrik denik diru bilketaren murrizketaren arrazoia, ezta gastu publikoa jaitea beharrezkoa denik ere. Alderantziz, inoiz baino beharrezkoagoa da administrazioen gizarte gastua gehitzea; bestelako zerga politikaren aukera, eta zor publiko handitzeko duten marjina handiak, posiblea baino gehiago egiten dute.

¹ Itzuli beharreko zenbateko osoa 435 milioi eurokoa da; horietatik, 137,95 milioi 2009ko abenduan transferitu ziren, eta 297 milioi, 2010eko martxoan.